

'El problema vasco'

TXILLARDEGI



France 'est Une et Indivisible de Dunkerque à Tammanraset'.

Hortaz: 'Algérie Française', eta abar. Halako batez, De Gaulle Jeneralak sekulako itilua sortu zuen: «*Il faut une Algérie algérienne*». Ultra eskuindarrek orduan OAS delakoa sortu zuten.

Irakurleak ongi daki segida, eta amaia. Hemen, aldiz, abertzale ezagun batzuk jotta-ke ari dira esaten: «*El problema vasco no existe. Solo hay un problema español de democratización del Estado*». Eta grafian ere ageri da iritzirio: 'El problema vasco', kaktosen artean. Eta abar.

Barka: kaktos horiek eta irizpide zentzugabe horiek, sozial-imperialismoaren arrastoko dira (beste gauza asko bezala).

Inoiz irakurri al dugu 'el problema checheno', kaktosen artean? Edo-ta beste hau: «*El problema checheno no existe. El llamado problema checheno no es sino uno de los problemas del Estado Ruso*»?

Gainera euskal nazio-arazoa Españako demokrazia-faltari lotutako arazo bat besterik ez bada, zer pentsatu behar du barokotzar batek irizpide horietaz?

Kurdiarren nazio-arazoa ez da Irakoeko demokraziari lotutako arazo bat. Bestela zer da Turkiako edo Irango kurdiarren arazoa?

Gure nazio-arazoa ez da Españako problemaren kapituluska bat. Txetxeniako arazoa Errusiako arazoaren arteko zatitxo bat ez den bezala.

Euskaldunok ez baikara espainiak zapalkuntzaren poderioz baizik.

Kontsentsua eta akordioa

JOSERRA ETXEBARRIA



ASKOK


uste dutenaren aurka, azken boladan barra-barra dabilzan bi hitz hauek ez dira elkarren sinonimoak, elkarren kontrako jarrera elkartzinak adierazten dutenak baizik. Kontsentsua estatuko agintarien zuzendari-tzapean estatuaren izaera eta beraren agintarien erabakiak zalantzan jartzen dituen taldearen —sarritan gutxiengoaren ordezkarria dena— aurka eratuatzeko komententziako batasun artifiziala baino ez da, beste guztiak arrazoirik gabe daudenaren erabakiak inposatzeko egiten duten ituna, aipaturiko talde horren aurkako gorrotoak bultzatua, demokraziaren gehien-goaren jantziarekin inposizioa izkatuta nahi duena, eta, gainera sarri justiziaren aurka erakitzen den hitzarmena dena. Adibideak ugari ditu. Euskal Herriaren askatasunaren aldeko eskaria estaltzeko azken hamarkadetan eginko kontsentsuetan, dela konstituzio espainiarraren inposizioarako, dela presoen sakabanaketarako, dela komunikabideen bidezko itilasuenerako edota ezker abertzaleari erasotzeko kontsigna konkretuak behin eta berriro aire-ratzeko, dela... Eurrez aipa ditzakegun kasuak, zoritxarrez. Zeren eta, euskal nazioaren egituraketa egonkorra oztopatzeko etengabe erabiltzen ari diren politika, estatu barmeko kontsentsuan oinarrituta baitago.

Bestelakoa da akordioa, partearen arteko akordioa, nahitanahiez justizian oinarritu beharrekoa, eta zehatzago esateko, ordurarte onartu ez diren oinarriko eskubideen aitopenean erakiki beharrekoa. Akordioa da zapalduen eskubideak aintzat hartzeko bide baketsu bakarra, pertsona eta herri zapalduak ezin onar baitezakete, beren desagerpena lekarkeen kontsentsurik. Kontsentsuaren helburua herri zapalduaren likidazioa baita.

EL MUNDO

Barnea, kanpoaldera

Dirudienez, Galindo Handiaren meritu nagusia ETAko laurogei «komando» desegitea izan da. Izugarria, dudarik gabe. Baina nahiko eragin-kortasun zalantzakoa, gauzei beharrezko perspektibarekin erreparatzen badiegu. Helburu behinena ez baita «komandoak» in eternum desegitea. «komando» gehiago, deseginda edo desegin gabe, ez egotea lortzea baizik. Hots, ETAREN indarkeria desagertzea. Eta helburu hori lortzeko, inondik ere zalantzakoa da Galindoren taldeak erabilitako metodoak egokiak izatea. Are okerrago, bai baitirudi Galindoren gizonen indarkeria desagertzen lagundu beharrean



TASIO/EGIN

elikatu egin dutela.

Gero eta aperikoagooa da Barneko bi klan handien artean dagoen gerra: alde batek, Bellochen talde politziala dago; bestetik, «jasotako herrendenziari» dagozkionak, gelditzen diren Galindo guztien bunkerrean gotortuak, berdez, marroiz edo kaleko jantzi ibiliagatik ere. Elkarriz salaketak egiten dizkiote, trapu zikinak ateratzen dituzte...

Barna luzaroan izan da barnekoegia. Beharrezkoa zuen pasao bat ematea kanpoaldea. Aire garbia. Ezin baitu garbiketa publikoaren

ardura izan bere zaborra-bera ere kanpora ateratzen ez duenak.

JAVIER ORTIZ

LAVANGUARDIA

ETAren estrategia

Baliteke ETA ahulduta egotea. Manuel Fragak hila zela handikiro esan zuen garaiez geroztik Barne Ministerio guztiek esan duten bezala. Baina, zoritxarrez, bizirik dirau, eta jardun betean. Eta nahiz azken ekintza terroris-

tetan helburu guztiak ez dituen bete, egia da Estatuaren etsai nagusia izaten jarraitzen duela, eta arrisku handia egonkortasun demokratikoarentzat. Indarkeriaz jotzen du pertsona jakin batzuen aurka, edo inolako bereziketarik egin gabe, ez baita gauza bere ideiak bide demokratikoa eta elkarriketa erabilia nagusiarzetea. (...) Ez da fintasun handirik espero behar pistolen bidez mintzatzaren direnengandik. Zoritxarrez, euskaldun askok sinesten dute horiengan, eta botoa HBri ematen diote.

LLUIS FOIX

ZUZENDARIARI

Lutxi Arregi intsumituari gutun irekia

Iceepa, lagun!

Agur bero bat lehendabizi Cantabria aldeko hondartza txoko epel honetatik. Tamalez zuk ezin izan duzu aurren inolako planik egin udarako, eta negurako pentsatuta zenituenak ere ahantz itazu...! 15 egun eta gau luze egin dituzu Martuteneko gerizpean eta oraintsu 3. graduaren irten zara (atera zaituzte) zu bezalako beste gaizkile gaiztoen eta basapiztien artean. Orain eguna 'kalean' pasatzen duzu eta dagoeneko zure azal zuriaren kolore ajatua belztu ahal izango zenuen pittin bat. A! Hori bai, gauzez beirriro ere bueltatzen zara oihamera eta Martuteneko zeru zatiko izartxoek begira lo hartzen duzu gauero Mila Izarrek Moteltxoan (han denbora oso motel pasatzen da), gaua joan eta gaua etorri. Urtebeterako-edo erreserba egin dizute bertan. Hori bai, sinestu egidazu San Roke

gauko festa osteko ajerik ez duzula izango... Gaitzerdi! Lasai, guk edan eta dantzatuko dugu zuri dagokizuna. Zure omenez topa egin eta Sanmigelari kulo emango diogu inpotentziatz.

Bestalde, badakit herriak eta herriko Udalak za askatzea eskatu zutela. Badakit bi Ertzain haiek za atxilotzera joatean esan zutena: «*Lo sentimos mucho, estamos con vosotros pero es que tenemos que hacer nuestro trabajo*» Badakit Martuteneko zaindari/funtzionariet ziotena: «*Los insumisos no deberiais estar aqui*» (haiek ere intsumisioaren aldekoak, arranopola!). Badakit Martuteneko mojatxoek ere 'estraperloan' marrubizko jogurtak pasatzen zizkizuetela intsumituei (bejondaiela!). Badakit, badakit...

Halere, badakizu zergatik giltzapetzen zaituzten: gizartearentzat arrisksua den delitua egin duzulako. Badakizu zertarako: gizarteratu aurretik egindakoaz daumu izan behar duzulako eta ongi eta gaizki dagoena bereizten ikasi behar duzulako. Badakizu gizaratek ez duela zu be-


zalako zomorro jendaila onartzen inguruan. Badakizu kalera irteko arazoak dituzula, ostikoka erabiliko zaituzte eta. Badakizu azken finean munduko bakea, gerrarako prestatu nahi ez izana, ejerzitorik gabeko gizarte, pertsonen arteko maitasuna, berdintasuna... badakizu horiek 60ko hamarkadako Beatleszale txi-madun batzuen ajeak besterik ez direla. Badakizu Hiroshimako errepika ez dadin ipurtzuloraino armatuta eta ongi prestatuta egon behar dugula. Badakizu zientzian dagoela etorkizuna, eta ez kontzientzian! «*Si vis pacem, parabellum*» garaian bizi garela, kontixul! Badakizu, badakizu...

Beno, eta bukatzeko besarkada bat bidali nahi dizut itsasoko ur gardenetan dzanga egin baino lehen.

A! Nik ez dakidana zera da, denok pekatu berbera egin badugu, nolatan gauden eçoera honetan: gu hondartzetan eta zu itzaletan. Zuk ba al dakizu?

ABEL IRIZAR
Elgoibar (Gipuzkoa)

GAIA JARRITA



Tren istripua Indian

Berehundurik gora hilak badira atzerritar nahiz indio, goizean goizik esan diote bizitza honi adio. Bi trenek elkar jo omen dute behi bat dela medio, ikusten denez behien bizitzak han gehiago du balio.

IOSU ZELAIA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90 ISSN 1134-640X



OJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontselleko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendari: JOAN MARI TORREALDAI

Kontsellarik Ordendaria: IRAKI URIA

Zuzendaria: MARTXELU OTAMENDI

Gorontes: FERMIN LAZKANO

Publizitate: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Egoitza nagusia: Gualeren etorbidea, 2/g / 20140 Andoain

☎ 300 222 / Erredakziozko faxa: 300 255 / Publizitateko faxa: 300 707

Araba: San Antonio, 20 / 1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

☎ 410 40 46 / Faxa: 410 37 15 / ☎ Publizitate Orkorta: 410 38 55

☎ 13 19 65

Nafarroa: Iratoe Monastegia, 45-13 esk. / (Iruñizko dorrea) / 31011 Iruñea

☎ 17 80 78 79 / Faxa: 17 80 77 / ☎ Publizitate: 17 80 80

Bizkaia: Zabaltzuri Eparantzua, 2-1 ezker. / 48003 Bilbo

☎ 410 40 46 / Faxa: 410 37 15 / ☎ Publizitate Orkorta: 410 38 55

☎ 410 38 46

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Parnacua 14, 1 / 503 Pista

Kutxaria / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11